



JON URBE / FOKU

**Amaia Irazusta.** Haren alabak aparteko beharrak ditu, eta bertatik bertara bizi izan du zerbitzuak gutxitzeak sarri gurasoei ekarri dien gainkarga. Oraindik beldur da egoerarekin.

## «Arriskuaren eta bizitzaren arteko oreka zaila da»

### M. Ortega Zubiate

Ikazkoa ez da Amaia Irazustak (Donostia, 1975) bizi izan duen lehen konfinamendua. Duela zazpi urte ere, sei hilabete eman zituen etxean itxita, higiene eta segurtasun neurri zorrotzen pean, Madrilen, urtebeteko alabari hezur-muineko transplantea egin eta gero, hura osatu bitartean. Izan ere, alabak gaixotasun arraro bat du: bizkar-rrari larriki esaten dio, eta entzumen urritasuna ere eragin dio.

Oraingoa, aurreneko haren ondoan laburragoa izan bada ere, «askoz gogorragoa» egin zaio: «Ez geunden prest honetarako». Izan ere, etxeko lau hormen artean egon behar izan zuen osasun arazoak dituen alabarekin, eta beste biseme-alabekin; horietako batek ere osasun arazoak ditu. Oso zaila egin zitzaion.

Hezkuntza telematikoa izan da parterrik zailena Irazustarentzat: alabak eskolan fisioterapeuta, logopeda, hezitzaile bereziak... Horiek guztiak ditu; amak egin behar izan zuen horien guztien lana. Horregatik, egoera luzatzen ari zela ikusi zutenean, Pausoka elkartearen fisioterapia eta logopedia zerbitzuak beren kabuz antola-

tzea erabaki zuten; argi zuen hori egin ezean itxialdiaren ostean alabak okerrera egingo zuela.

Etxean egiten zituzten fisioterapiako eguneroko ariketek alabaren bizkarrezurrari asko lagundu diotela ikusi badu ere – «Beti saiatzen ginen jolas modura egiten, edota yoga estilora», azaldu du –, etxealdiaren ondoren nabaritu zuen alabaren gaitasun aerobikoa gutxitu zela; oso azkar nekatzen zen, alegia. Horretan, apurka-apurka hobetu dute aurtengo ikasturtean, amaren ustez.

Logopedia zerbitzuak apurka berreskuratu ziren, era telematikoa, eta egun ere horrela egiten dituzte, aurrez aurre egitekotan maskara jantzita egin beharko litzuketelako; eta horrek asko zailduko lieke komunikazioa.

Baina dena ez da telematikoa. Eskola orduak, behintzat, aurrez aurre egitea lortu dute ikasturte honetan, medikuek iritzi baitiote alaba ikastetxera joan daitekeela aparteko arriskurik gabe. Dena den, beldurrak hor dirau. Alabak arriskurik hartu ez dezan zenbait leku itxitara ez joateko esan dio amak; era berean, haren bizitza ahalik eta normalena izatea nahi du: «Orekarri eustea oso zaila da».

# Kutsatu kopurua zertxobait apaldu da, baina oraindik testen %13,3 dira positibo

1.231 kasu positibo atzeman dituzte Osakidetzak eta Osasunbideak  
• Bizkaian atzeman dira gehienak; atzetik, Gipuzkoa, Nafarroa eta Araba

### M. Ortega Zubiate

Birusak arnasa pixka bat eman dio bilakaera epidemiologikoa- ren kurbari: Osakidetzak eta Osasunbideak 1.231 positibo jakinarazi zituzten atzo. Gutxiago dira, aurreko egunetakoekin alderatuta: 1.569 izan ziren larunbatean, eta ostiralean, berriaz, 2.079. Are gehiago, atzo jakinarazitako kopuru bertsua ikusteko bi aste egin behar da atzera, uztailearen 13ra: 1.272 positibo jakinarazi zituzten orduan. Hala ere, egindako proba kopurua kontuan hartuta, positibo- en ehunekoa ez da nabarmen aldatu: %14,1 ziren herenegun, eta %13,3 atzo.

Atzo jakinarazitako datuak igandean egindako probenak dira, eta, asteburua izaki, proba gutxiago egiten dituzte osasun zentroetan. Horri egotzi dakioko kutsatuen kopuruak behera egitea; izan ere, azken hamalau egunetan egindako proben eta positibo- en arteko proportzioak, hau da, positibo tasak gora jarraitzen du oraindik: testen %13,45k eman dute positibo; inoiz izandako ehunekorik altuena da. Hamar egun baino gehiago daramatza

%10eko muga gaindituta, OME Osasunaren Mundu Erakundeak izurria kontrolatzen hasteko ezarritako %5eko mugaren bi halako atzematen.

Asko dira kutsatzen gehitzea azaltzen duten arrazoiak, zenbait agintariren ustez. Alde batetik, haien iritziak, neurriak «laxatzeak» eta joan-etorriak areagotzeak eragin dute positiboak biderkatzea. Beste alde batetik, azpimarratu dute egun nagusi den Delta aldaera ere garrantzi han-

### Delta aldaera da nagusi Hego Euskal Herrian: hamar kutsatetik zazpi inguru dira aldaera horretakoak

dia duela horretan: zenbait adituk adierazi dute Alfa aldaera baino – delta aldaera zabaldu aurretik orokortuen zegoena – %40 kutsakorragoa izan daitekeela. Osasunbideak eta Osakidetzak emandako datuek hori erakusten dute; izan ere, maiatz hasieran oraindik ez zegoen baieztatuta aldaera horretako kasurik, eta, orain, aldiz, Osasunbideak sekuentziatutako positibo- en %79,8 eta Osakidetzako- en %73 dira al-

daera horretakoak. Beraz, Hego Euskal Herrian hamar kasutik zazpi inguru dira Delta aldaera- koak, azkena emandako datuen arabera.

Hala ere, datuak, oro har, duela bi aste eko ekoerara itzuli dira. Horixe gertatu da herrialde guztietan; horrelakoa izan da bilakaera: uztailearen erdialdean atzemandako kopuru antzerakoetan dau- de egun.

Bizkaian izan dira kutsatu gehien. 508 lagunek eman zuten positibo herrialdean. Kutsatzen buruan bada ere, atzo jakinarazitako datuek ekarri dute aldatariki: etengabeko gorakadan izan da herrialdea, 1.000 kutsatuen langa gainditzeraino. Atzokoak, ordea, bi astean izandako daturik apalenak dira. Bizkaia-aren ostetik, Gipuzkoan atzeman dituzte kasu gehien: 312 izan dira, aurreko egunean baino 50 gutxiago. Nafarroa dago haren atzetik: 289 kutsatu jakinarazi ditu; beraz, uztailearen 9ko ekoerara hurbildu da. Eta azkenik, Araba dago, 100 kutsatuen langa gaindituta: 101 positibo jakinarazi dituzte lurraldean.



Jendea, kalean, maskara jantzita. LUIS JAUREGIALTZO / FOKU